

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Laparra lehendakariordeak Aspaceren birziklatze-plantaren instalazio berriak inauguratu ditu Agoitzen

Gobernuak diruz laguntzen du 60 pertsonari enplegua ematen dion enpresa honen jarduera

Asteartea, 2018.eko martxoak 20

Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak eta Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusi Eva García parte hartu dute, Aspacek Agoitzen kudeatzen duen etxetresna elektrikoak birziklatzeko instalazio berrien inaugurazioan. Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako Enplegu Zentro Berezi honetan 60 pertsonak lan egiten dute.



Laparra lehendakariordea, eskuinetik bigarrena, telebista-aparatuen birziklapenari buruzko azalpenak entzuten.

Inaugurazio ekitaldian, Laparra lehendakariordeak nabarmendu du Aspacek duela 40 urte baino gehiagoz geroztik garuneko paralisia edo antzeko arazoak dituzten pertsonak gizarteratzeko egiten duen lana: “Garrantzi berezia du enpleguaren bitartez gizarteratzeko egindako lana”.

Honela, Laparrak enpleguaren bitartez egindako gizarteratzearen onura sozial bikoitza azpimarratu du: “aintzakotzat hartzen dira aniztasun funtzionala duten pertsonen eskubideak eta ikusgaitasun soziala, beraien gaitasunak nabarmenduz. Bestetik, enpleguak gizabanakoen ahalduntzea errazten du, herritar gisa duten erantzukizuna eraikiz eta beraien autonomia pertsonala hobetuz, betiere lanaren bitartez lortutako diru-sarrereri esker eta planteamendu asistentzialista hutsetatik urrunduta”.

Halaber, Miguel Laparrak gizarte osoaren erantzukizuna ere gogoratu du, administratibotik enpresetaraino eta profesionaletatik gizarte osoraino, eta gizarteak ere kontzientzia hartu eta desgaitasuna duten pertsonen kontrataziorako neurri positiboak erantzun behar diela esan du.

Horren harira, Aspaceren ekimena goraiatu du berriz ere: “era askotako gaitasunak dituzten pertsonen lan-munduratzeari ahalbidetzen du, baita lurralde-hedapena ere, Nafarroako geografiaren zati handi batean aukera berriak eskainiz”.

Enplegatutako 60 persona

Jardunean egin dituen hamaika urteetan, Agoitzeko planak

enplegatutako pertsona-kopurua laukoiztu du, egun 60 langile dituelarik, horien % 94 desgaitasunen batekin. Betiere hiru etxetresna elektriko motaren tratamenduan dihardutelarik: hozteko aparatuak, izpi katodikoak tutuak dituzten monitorea, eta etxetresna elektriko txikiak eta handiak.

Ecointegra Aoz lantegiak Espainiaren iparralde osotik jasotzen du birziklatzeko materiala, eta ia zikliko Akitaniatik ere, jarduera dextente gehitu duelarik. 2017an, plantak 7.900 tona material birziklatu zituen: % 10 burdinarik gabeko materialak ziren, % 12 plastikoak eta % 36 burdinazko materialak. Lantegira sarzten den materialaren % 5 bainik ez da deuseztatzen, eta portzentaje hau areago murriztu nahi dute.

Nafarroako Gobernuak, Nafar Lansarearen bitartez, diruz laguntzen du Aspace Fundazioak kudeatutako Enplegu Zentro Berezien (EZB) jardura. Guztira, 1.629.211,86 bideratzen ditu lan-orientazioa, inbertsioak eta desgaitasuna duten langileen soldataren eta gizarte-segurantzaren zati bat ordaintzeko. Exekutiboaren inbertsioa bat dator legealdi honetan EZB guztiei laguntzeko egin den aurrekontu-ahaleginarekin, % 30 inguruko hazkundearekin, 7,5 milioitik 9,8 milioi eurora igaro delarik. Hartara, 2017an, inbertsiorako laguntzak berreskuratu ziren, Agoizko plantari zuzendutakoa barne.

Hondakinetik baliabidera

Ecointegrak Agoitzen duen instalazioaren lana bat dator Nafarroako Gobernuak onartu eta 2016az geroztik indarrean dagoen 2017-2027ko [Nafarroako Hondakinen Planarekin](#), baita Aparatu Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak prebenitu eta kudeatzeko Europako zuzentarauarekin (RAEES) ere. Horrelako aparatuak tratamendu-instalazioan bildu eta prestatuz gero, bigarren bizitza bat ematen zaie aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinei, material gisa profitatuz eta baliabide bihurtuz, ekonomia zirkularrak bultzatzen duen zikloa osatu arte.

Ecointegrak oraingo instalazioak handitu ditu, jardura materialak esparru handiago batean berrantolatzea behartzen zuten birziklatutako aparatu-mota berrietara irekiz.

Instalazio berriek 2.215 metro koadroko azalera erabilgarria dute, eta materialen mugimenduak berrantolatzea ahalbidetuko dute, orgatila nahiz pertsonak igarotzeko guneak bereiziz. Kanpoko deskargarako bi nasa ditu eta ontziratutako gabeko produktuak deskargatzeko 2 box, hasierako instalazioen osagarri gisa.

Gainera, plantaren aurreko azalera bikoiztea suposatzen du, eta horrek igoera nabarmena ekarriko du desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako lanpostuen kopuruan.

Proiektua Nafarroako Gobernuaren, BBVAren, Geoalcali Fundazioaren eta Once Fundazioaren laguntzaz gauzatu ahal izan da.